

# JAUZI EGITEKO AUKERA ARABAN

Arabarren %20 elebidunak dira baina hiru laurdenarentzat gaztelania da lehen hizkuntza; ikerketa batek berretsi du aukera dagoela errotuta dauden hizkuntz ohiturak aldatzeko eta euskararen erabileran urrats handiak egiteko.



Estitxu Ugarte / Alea aldizkaria

@estitxuugarte

Euskararen erabileran jauzi egiteko aukera dago. *Arabarren euskararen ezagutza, erabilera eta iritziak*, 2015 ikerketa soziologikoaren ondorio nagusia da herrialdean euskararen erabilera ez dela handitu ezagutza bezainbeste, nahiz eta testuingurua askoz hobea izan. “Arabarren %20 elebidunak baldin bagara ere, hiru laurdenarentzat lehen hizkuntza gaztelania da, oso errotuak ditugu gure hizkuntz ohiturak, eta gure hizkuntz komunitatea gaztelaniazkoa da. Hutsunea hor dago”. Aztiker enpresako soziologo den eta aipatu ikerketan parte hartu duen Asier Etxeniketik aditzera eman du herrialdea uste duguna baino euskaldunagoa dela, eta dituzten aukerak baliatu behar dituztela arabarrek saltoa emateko.

Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuak eta Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuak Arabako errealtate soziolinguistikoa eta erakunde publikoen hizkuntza politikei buruzko iritziak aztertzeke eskatu zioten Aztiker soziologia ikerguneari. Arabako 1.175 herritar inkestatu dituzte; horietatik, 389 gasteiztar. Arabarren euskararen ezagutza aztertu dute, hainbat esparru funtzionaletan euskara erabiltzeko zein aukera dauden eta zein erabilera egiten den, eta orokorrean, euskararen inguruan zein jarrera duten.

Ondorio positiboak eta negatiboak islatzen dituzte ikerketa lanaren zenbakiak. Alde positiboan jasotzen da euskararen ezagutzak gora egin duela modu nabarmenean herrialde osoan. Etxenikeren esanetan, “egungo umeen gurasoek euskara badakite, eta hori aldaketa handia da, urte batzuk atzera eginda, Araban eman den aldaketa bat”.

## Erreferenteak, helduaroan

Ikerketak jasotzen du elebidun asko euskaltegiei esker direla gaur elebidunak, eta pisu handia dutela helduaroan euskaldundu diren pertsonak. Euskararen erabilera sustatzeko orduan horiek “erreferente” bilakatu behar direla uste du Etxeniketik. “Hor indarra egin behar da, Araban asko nabaritzen da euskaltegiei egin den lana, eta inportantea da, esate baterako, lan mundua euskalduntzeko”.

Halaber, umeentzat eta gazteentzat helduen mundua erreferentzia bat den heinean, bultzatu behar da adineko arabarren euskalduntzea. “Etorkizuna Araban euskalduna izango dela esaten dugunean, sarritan ahaztu egiten zaizkigu gaur-gaurkoz erdaldunak diren heldu horiek, ezinezkotzat jotzen ditugu, eta konfiantza jartzen dugu etorkizunean, umeak euskaldunduko dire-

lako; joera hori da, baina egia da baita ere helduen munduan eragin behar dugula”.


## Ohiturak apurtu

Izan ere, euskararen erabileran oso hankamotz dabilta arabarrak; elebidun diren hamar lagunetik bi baino ez dira ondo moldatzen bi hizkuntzetan, eta %74,2 gaztelaniaz hobeto moldatzen da euskaraz baino. Hizkuntz ohiturek eta aurreiritziek arabarren kontra jotzen dute. Etxenikeren esanetan, “erraztasun gehiago dugu erdaraz, eta horrenbestez, erdarara jotzen dugu gehiago, ohitura batzuk apurtu behar dira eta azkenean euskara erabiltzeko gaitasuna handituko da”.


Halaber, gaztelania nagusi den ingurune batean bizitzeak elebidunen joera baldintzatzen du, zenbait eremutan euskara erabiltzeko aukerak egon arren ez dituztelako baliatzen. “Gure ingurua uste duguna baino euskaldunagoa da, baina horretaz jabetu behar gara euskaldunak, kontzientzia hartu behar dugu eta euskaraz bizitzeko ditugun aukerak baliatu behar ditugu”, azpimarratu du Etxeniketik.

Ikerketaren arabera, elebidunek euskara lehen hizkuntza izateko inoiz baino egokiagoa den testuingurua bizi dute;

## Euskara erabiltzeko AUKERA / ERABILERA



Iturria: Aztiker Ikergunea. Infografiaren egilea: Aritz Martinez De Luna.



lankideen artean, esate baterako, oro har erdal giroa nagusitzen da, baina inork edo ia inork euskaraz ez dakiten lan taldeak gutxiago dira euskaraz dakiten lan taldeak baino.

### Desirak

Beste alde batetik, ikerketak arabarren etorkizuneko desirak jaso ditu, eta horretan ere aldaketa nabarmentzen da, izan ere gehiengoak nahiago du etorkizuneko gizarte elebidun bat. “Orokorrean –azaldu du Etxenikek– euskararen aldeko jarrera zabaldua dago; kontuan hartuta elebidunak %20 garela, pisu handia dugu”. Dena dela, jarrera positiboa leuntzen da, euskara esparru pertsonalera eramaten denean edo ingelesaren erreferentzia tartean sartzen denean. Orduan, erdaldunen eta elebidunen artean jarrera desberdinak antzematen dira, erdaldun gehienentzat

» **ASIER ETXENIKE, SOZIOLOGOA:**  
“Normalizazio egoera bat dago eta nahiz eta objektiboki horrela ez izan, euskalduna ez da diskriminatuta sentitzen”

» “Gure ingurua uste duguna baino euskaldunagoa da, baina horretaz jabetu behar gara euskaldunak, euskaraz bizitzeko ditugun aukerak baliatu behar ditugu”

ingelese euskara ikastea baino baliagarriagoa baita.

Azkeneko atalean, Aztikerrek egindako ikerketak elebidunak eta erdaldunak diskriminatuta sentitzen ote diren jaso du txostenean, eta ondorio nagusia da gehienak ez direla inoiz diskriminatuta sentitu. Asier Etxenike soziologoaren aburuz datu esanguratsua da, bereziki euskaldunen ikuspuntutik. “Normalizazio egoera bat dago eta nahiz eta objektiboki horrela ez izan, euskaldun jendea ez da diskriminatuta sentitzen, ez du ikusarazten diskriminazio egoera batzuk badaudela, eta maila horretan euskararen pertzepzioa positiboagoa da, ez da antzematen gatazkarik edo diskriminaziorik”. ■

» Artikulu hau Arabako “Alea”k argitaratu du eta CC-by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

BABESLEA: HONDARRIBIKO UDALA



Hondarribia  
euskaraz bizi

